

05/09 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Otxoa jn.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2005eko ekainaren 23an egindako bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: EAEko ikastetxeetan Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna gauzatzeko prozesua arautzen duen Agindu proiektuari buruz

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio EAEko ikastetxeetan Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna gauzatzeko prozesua arautzen duen Agindu proiektua, horri buruzko nahitaezko txostena eman dezan.

Halaber, helarazi dira Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzak emandako txostena, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria.

AURREKARIAK:

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, araubide bereziko irakaskuntzei buruzko Bigarren Tituluan arte-irakaskuntzak zehazten ditu, eta xedetzat dauka ikasleei kalitatezko arte heziketa ematea eta musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuaren biharko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

Martxoaren 5eko 362/2004 Errege Dekretuak (BOE, 2004ko martxoaren 26koa) berariazko Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezarri du, eta bere lehen xedapen gehigarrian finkatu du Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari edo goi-mailako teknikari tituluak ateratzeko ikasketak heziketa zikloetan antolatzen direla. VI. kapituluan, berriz, heziketa zikloen ebaluazioaren oinarriko alderdiak finkatu ditu.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa zikloen tituluak ezarri eta horiei dagozkien gutxieneko irakaskuntzak onartu dituzten Errege Dekretuek diotenaren arabera, ikasleek, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari edo goi-mailako teknikari tituluak ateratzeko, ebaluazio positiboa erdietsi behar dute honako hauetan: ikastetxeko prestakuntza-aldian, zikloaren curriculum-a osatzen duten modulu guztietan, enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldian, eta azken obra edo proiektuan.

EDUKIA

Dekretu proiektu honek 15 artikulua, azken xedapen bi eta 5 eranskin ditu.

1. artikulua aplikazio eremua zehazten du eta 2. artikulua ebaluazioaren ezauzgarriak definitu ditu.

3. artikulua ebaluazio prozesua finkatu du eta, era berean, ebaluazio saioak eta curriculum-egokitzapen garrantzitsuak dituzten ikasleen ebaluazioa zehaztu du.

4. artikulua moduluen kalifikazio eskalak aipatzen ditu eta 5. artikulua ikastetxeko prestakuntza aldian hurrengo ikasturtera igarotzeko baldintzak finkatu ditu.

6. artikulua moduluak gainditzeko deialdiak (ohikoak eta apartekoak) ezarri ditu. Horrez gain, deialdiari uko egiteko eta bosgarren deialdia baimentzeko aukera ere jaso du. Bosgarren deialdirako aukera izango du ikasleak, baldin eta artikulua honetan bertan zehaztutako zirkunstantziaren bat gertatu bada eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendariak hala baimendu badu.

7. artikulua ohiko ebaluazioa arautzen du, lau jardura mota bereiztu dituelarik: moduluak partzialki ebaluatzeko saioa, modulu bakoitzaren azken ebaluazio saioa, enpresetako prestakuntza praktikoa ebaluatzeko saioa eta azken obra edo proiektua ebaluatzeko saioa.

8. artikulua aparteko ebaluazioa zehazten du.

9. artikulua enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia arautzen du: hasiera, kalifikazioa, prestakuntza egitetik jare geratzeko aukera eta deialdi kopurua.

10. artikulua azken proiektua edo obra egiteko baldintzak ezarri ditu.

11. artikulua dio goi-mailako teknikaria Arte Plastikoetan eta Diseinuan, eta teknikaria Arte Plastikoetan eta Diseinuan tituluak ateratzeko, kalifikazio positiboa lortu behar dela modulu guztietan, prestakuntza praktikoaren aldian eta azken proiektu edo obran.

12. artikulua ebaluazio prozesuko dokumentuak arautu ditu eta hauen ereduak atxiki dizkiei eranskinei. Hauek dira dokumentuak: norberaren ikasketa espedientea,

moduluen ebaluazioko aktak, enpresetako prestakuntza aldiko ebaluazio aktak, azken proiektuaren edo obraren ebaluazio aktak eta zikloaren azken ebaluazioko akta.

13. artikulua ebaluazioaren emaitzei buruzko informazioa eta komunikazioa jasotzen du.

15. artikulua ikastetxez aldatzeari buruzko prozedura arautu du.

16. artikulua irakaskuntza prozesuen eta praktikaren ebaluazioa jasotzen du.

Azken xedapenetatik lehenak arautegi garapena baimentzen du eta bigarrenak araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Gure irizpenpean jarri den arau honen helburua da honako hauek arautzea: ebaluazio-prozesuaren garapena eta denbora antolamendua, ikasturtea igarotzeko baldintzak, prestakuntza praktikoaren aldiaren ebaluazioa, eta azken obra edo proiektuarena.

Proiektua aztertutakoan, ohartu gara akats bat dagoela artikuluen zenbaketan, ez baitago 14. artikulurik.

Gainontzekoan, Batzorde Iraunkorrek uste du agindu proiektu honek egoki arautzen duela ikaskuntza hauen ebaluazio prozesua, horrela beraz, aurkeztu zaion proiektuaren aldeko irizpena eman du.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2005eko ekainaren 23a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Sinaturik : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.